

ARABA 2026 URRIA

Ondarearen
Europako
Jardunaldiak



Gure Eskuetan

EL PATRIMONIO EN NUESTRAS MANOS



Ondarearen herentzia
entzuzatzen
gurean erortzen
da gurean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba álava
foru alandia diputación foral

Bizkaia
foru alandia
diputación foral

GIPUZKOA



Ondarearen Europako Jardunaldiak herritarrek parte hartzeko ate irekien proiektu bat dira, 1991tik Europako Kontseiluaren ekimenez Europar Batasunarekin lankidetzan antolatua. Urtero, Arabako Lurralde Historikotik bat egiten dugu ekimen honekin, ondarea biztanleriari hurbiltzeko, ezagutza partekatzeko eta gure eguneroko bizitzaren parte den ondare materiala zein ukiezina balioan jartzeko.

Edizio honetarako proposatutako gaia **«Arriskuan dagoen ondarea: berritu, eutsi, berrasmatu»** izango da. Ikuspegi horretatik abiatuta, hiru Lurralde Historikook -Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia- lelo komun bat zehaztu dugu: **Gure Eskuetan / El patrimonio en nuestras manos**. Planteamendu honekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, gure ondareak dituen erronkei buruz hausnartzera gonbidatu nahi dugu, eta gogorarazi bere kontserbazioa, transmisioa eta berrikuntza konpromisu kolektiboaren araberakoak direla.

Arabatik ondarea errealitate bizidun gisa ulertzen dugu, etengabe eraldatzen ari den errealitate gisa. Gure paisaiaetan, eraikinetan, lanbideetan, ohituretan, hizkuntzetan, memorietan eta bizikidetzaz-moduetan dago. Berpiztu, eutsi eta birimajinatu, horri hurbiltzeko hiru modu dira: jakintzak eta kontakizunak berreskuratuz, aldaketei aurre egiteko gaitasuna indartuz edota interpretatzeko eta partekatzeko modu berriak aurkituz.

Arabako Foru Aldundiak, udalekin, kuadrillekin, museoekin, elkarteekin, kultur erakundeekin eta ondarearekin konprometitutako pertsona askorekin batera, Jardunaldi hauen ateak irekiko ditu berriro, honako programa anitza eta parte-hartzailea eskaintzeko. Gaur inoiz baino gehiago gure esku dagoen ondare bat deskubritzera, gozatzeraz eta zuen egitera gonbidatzen zaituztegu.

Ondarearen Europako Jarunaldiak • 2026

URRIAN ZEHAR

ERAKUSKETA: KOMUNITATE IJITOA AGERIAN JARTZEN

«Erreferenteak: Adineko emakumeak» 5

ASTEAZKENA, IRAILAK 30

ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA

«Memoria berreskuratzen: X Terra. Xamanaren hilobia» 7

OSTEGUNA, URRIAK 1

HITZALDIA

«Emakume ahotsarekin» 9

LARUNBATA, URRIAK 3

BISITA GIDATUA: «Nafarrate, 1936an hondatutako eliza» 11

IGANDEA, URRIAK 4

UMEENTZAKO TAILERRA: «Gatzgile tailerra» 13

ASTEARTEA, URRIAK 6

HITZALDIA: «Ondare arkeologikoa airetik begira:

Arabako Lurralde Historikoko erresilientzia adibide batzuk» 15

ASTEAZKENA, URRIAK 7

ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA

«Memoria berreskuratzen: Jesús Carrera: Hondarribiko Gorria» 17

ASTEAZKENA, URRIAK 14

BISITA GIDATUA: «Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa:

Angel Sagarminaga Mendietaren emaria gordetzea 100 urte ondoren» 19

ASTEAZKENA, URRIAK 14

BISITA GIDATUA: «1976ko martxoaren 3a. Sarraski baten hiri-arkeologia» 21

OSTEGUNA, URRIAK 15

TAILERRA: «Eta, hau nola gordetzen da?» 23

OSTEGUNA, URRIAK 15

HITZALDIA: «Ondare ukiezina, ondare ikusezina?» 25

OSTIRALA, URRIAK 16

TAILERRA KOMUNITATE IJITOA IKUSTARAZTEN «Kafe ijitoa: Gure sigilua» 27



URRIAN ZEHAR



Bisita gidatuak Arabako museoetara

Norentzat: Ikusmen-, mugikortasun- edo adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat.



Eguna eta ordua: Hitzartu behar dira.

Bisitak eskatzea: educacionmuseosyarqueologia@araba.eus

OSTIRALA, URRIAK 16 HITZALDIA: « <i>Euskal laiak</i> »	29
LARUNBATA, URRIAK 17	
BISITA GIDATUA: « <i>Murua eta Exaguen artean: Lanbideak eta ohiturak Gorbeia magalean</i> »	31
LARUNBATA, URRIAK 17 BISITA ANTZEZTUA: « <i>Lanbide antzeztuak</i> »	33
IGANDEA, URRIAK 18	
BISITA GIDATUA: « <i>Bilarreko San Bizenteko dolarearen indusketa arkeologikoa</i> »	35
IGANDEA, URRIAK 18	
BISITA GIDATUA: « <i>Gesaltza Añanako ondarearen berreskuratzea: Añanako Gatz Harana eta Zambrana-Herran Jauregia</i> »	37
ASTEAZKENA, URRIAK 21	
BISITA GIDATUA: « <i>Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa: Angel Sagarmínaga Mendietaren emaria gordetzea 100 urte ondoren</i> »	39
ASTEAZKENA, URRIAK 21	
BISITA GIDATUA: « <i>1976ko martxoaren 3a. Sarraski baten hiri-arkeologia</i> »	41
LARUNBATA, URRIAK 24	
HITZALDIA: « <i>Lanbide antzeztuak</i> »	43
LARUNBATA, URRIAK 24	
HITZALDIA: <i>Solasaldiak Arte Ederren Museoan Programa</i> « <i>Lovy, komedia musikal gasteiztarrenaren 50. urteurrena</i> (<i>Utopia kolektibo baten intrahistoria</i>)»	45
IGANDEA, URRIAK 25	
BISITA GIDATUA: « <i>Sugarretatik salbatu zen altxor errenazentista: Jasokundeko Andre Mariaren eliza</i> »	47
OSTEGUNA, URRIAK 29	
HITZALDIA: « <i>Hileta-kultura herrikoia Araban</i> »	49
LARUNBATA, URRIAK 31	
BISITA GIDATUA: « <i>Ibarrako historian eta ohituretan barrena</i> »	51
IGANDEA, AZAROAK 1	
BISITA GIDATUA: « <i>Portilla-Zabalate Multzoa. Gaztelua, hiribildua eta eungo herria</i> »	53

BiBat Museoa,
Arkeologia Museoa
eta Fournier Karta Museoa
945 203 707

Arma Museoa
945 181 925

Natura Zientzien Museoa
945 181 924
(Ez da irisgarria mugikortasun arazoak
dituzten pertsona guztientzat):

Arte Ederren Museoa
945 181 918



URRIAN ZEHAR

ERAKUSKETA: KOMUNITATE IJITOA AGERIAN JARTZEN

«Erreferenteak: Adineko emakumeak»

Datak: Irailaren 29tik azaroaren 1era arte

Ordutegiak: Asteartetik larunbatera: 10:00-14:00 / 16:00-18:30
Igandeak eta jaiegunak: 11:00-14:00

Lekua: Bibat Museoa (Vitoria-Gasteiz. Aiztogile kalea, 54)

Antolatzailea: Sin Romi Elkartea eta Bibat Museoa

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Emakume ijitoak beti izan gara funtsezko zutabea Ijito Herriaren kultura eta identitate ondarearen kontserbazio eta transmisioan. Gure esku egon da, belaunaldiz belaunaldi, denboran zehar gure kultura bizirik mantentzea ahalbidetu duten memoria, balioak, hizkuntza, ohiturak eta tradizioak.

Emakume ijitoa bere aniztasunagatik, sendotasunagatik eta zailtasun ugariri aurre egiteko gaitasunagatik nabarmendu egin da. Hainbat bidegabekeriaren aurrean borrokalariak eta aitzindariak izan gara, eta gure familiei ez ezik, aldaketei eta mehatxuei aurre egin arren egokitzen eta irauten jakin duen kultura-ondareari ere eutsi diogu.

Hala eta guztiz ere, funtsezko lan horrek gutxitan jason du merezi duen aitortza soziala eta, ondorioz, emakume ijitoen ondare biziaren zaindaria gisa duten papera ikusezin bihurtu egin da.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



DAS GRAB DER SCHAMANIN



biobío
Arkeología
Fournier de Naipes
Museoa



ASTEAZKENA, IRAILAK 30

ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA

«*Memoria berreskuratzen: X Terra. Xamanaren hilobia*»

Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: Christian Stiefenhofer

Kultura: Neolitikoa

Iraupena: 43 minutu

Hizkuntza: Ingelesa (azpigituluak gaztelaniaz)

Urtea: 2024

Aurkezpena: Cristina Camarero Arribas (Arkeologoa eta irakaslea EHU)

Ordutegia: 19:00

Lekua: Bibat Museoa (Aiztogile kalea, 54).

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: FICAB eta Bibat Museoa

Dokumental honen proiektzioaren helburua da, alde batetik, Historian emakumeak izan duen papera zehaztasun zientifikoz berreskuratzea eta, bestetik, genero ikuspegia landuta, estereotipoak eraikitzerakoan erabiltzen ditugun ustezko argudioak birpentsatzea.

Ia 9.000 urteko hilobi batean emakume bat eta haur txiki bat agertzen dira, baina hasieran haien heriotzaren arrazoia ez zegoen guztiz argi. Hilobia naziak aurkitu zuten eta beste helburu batzuetarako erabili zuten ahanzturan erori aurretik. Orain, berriro ikertzen ari da. Izan ere, emakumeak sekretu bat gordetzen du: xamana izan zitekeen. Filmak azken aurkikuntza zientifikoak eta arrastoen bilaketa forentsea aurkezten ditu, pixkanaka Bad Dürrenbergen xamana inguratzen duen puzzlea berrosatzen doana.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

OSTEGUNA, URRIAK 1

HITZALDIA. EMAKUME IJITOA IKUSTARAZTEN

«Emakume ahotsarekin»

Ordutegia: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: Sim Romi Elkarte

Tokia: Bibat Museoa (Aiztogile kalea, 54)

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: Sim Romi Elkarte eta Bibat Museoa

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Ikuspegi feminista landuta, Ijito Herriaren historia azaltzeaz gain, konferentzia bukaeran emakume ijitoen ekarpenaz hitz egingo dugu. Izan ere, Frankismo garaian, emakume gehienak ia ikusezinak eta isilaraziak bazeuden ere, emakume ijitoek ezarritako estereotipoekin hautsi eta hainbat hesi gainditu zituzten.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



INSTITUTO ALAVÉS DE ARQUEOLOGÍA
ARKEOLOGARAKO ARABAR INSTITUTUA

LARUNBATA, URRIAK 3

BISITA GIDATUA

«Nafarrate, 1936an hondatutako eliza»

Ordua: 10:00

Iraupena: 2.5 ordu inguru

Zailtasuna: Ertaina, 5 km inguru

Gomendioak: Kirol oinetakoak eta ura eraman

Hizkuntza: Euskara

Topalekua: Ipar Itsaso itsaskitegiko aparkalekua (Urrunaga. Kurrua kalea, 1)

Gida: Josu Santamarina Otaola, Diziplinarteko Estrategia Zientifikoak Ondarean eta Paisaian Doktorea (EZOPD) Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzaileak: Arkeologiarako Arabar Institutua

1936ko Legutioko guduko eszenatoki nabarmenetako bat ezagutzeko ibilbidea proposatzen digu Santamarinak, Eusko Gudarosteak Gerra Zibilean egindako erasoaldi handi bakarra. Ibilbidea Urrunagan hasiko da, urtegiaren oinaldean eta presa ikaragarriaren ondoan. Urtegia gerraostean eraiki zen, 1940ko eta 1950eko hamarkaden artean, eta aldaketa izugarria eragin zuen paisaian. Ondoren, ibilbidea Letxaboste muinotik igaroko da, Brontze Aroko balizko herrixka batetik, baita Kurtzegaindik ere, frankisten lubakien arrastoekin. Azkenik, Nafarrateko Jasokundearen elizaren aztarnak bisitatuko dira. Erdi Aroko tenpluak 1936ko abenduko borroka eta bonbardaketei zor die gaur egungo itxura, eta, ondorioz, leku hori Euskal Herriko «gera-hondakin» nagusietako bat da.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



Valle Salado
de Añana
Añanako
Gatz Harana

IGANDEA, URRIAK 4

UMEENTZAKO TAILERRA

«Gatzgile tailerra»

Ordua: 12:00

Hizkuntza: Euskara

Topalekua: Añanako Gatz Harana Fundazioa (Gesaltza Añana. Real kalea, 1)

Gida: Añanako Gatz Harana Fundazioa

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea. Adingabe bakoitzeko heldu bat joan daiteke GEHIENEZ, eta helduek ez dute parte hartuko, HAURRENTZAT BAKARRIK baita

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: Añanako Gatz Harana Fundazioa


Jarduera honek modu dibertigarri eta didaktikoan ezagutarazten ditu «urre zuri» ospetsua ekoizteko urratsak eta mendeetan zehar Gesaltza Añanan erabili diren metodo desberdinak.

Gune ikusgarri honetan eta gida baten eskutik, prozesua bertatik bertara biziko dugu: gatzarretan oinutsik sartuko gara gatzunaren kontaktua sentitzeko, gatzgileen tresna tradizionalak erabiliko ditugu eta, tailerra amaitzean, gatz geurekin etxera eramateko aukera izango dugu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irisgarria.



ASTEARTEA, URRIAK 6

HITZALDIA

«Ondare arkeologikoa airetik begira: Arabako Lurralde Historikoko erresilientzia adibide batzuk»

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: F. Rafael Varon Hernandez, Arkeologia Doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Arkeologiarako Arabar Institutua

Tokia: Bibat Museoa (Vitoria-Gasteiz. Aiztogile kalea, 54)

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Arkeologiarako Arabar Institutua eta ArkeoClio

Hegazkinetatik ateratako argazkiak eta LiDAR bezalako teknologia berriak erabilia, F. Rafael Varon arkeologoak Arabako paisaia azpian dagoen ondare arkeologiko eta historikoa ezagutzeko hitzaldi interesgarria proposatzen digu.

Adibidez, I. eta II. Burdin Aroko erromatarren aurreko kastroak, Iter XXXIV-aren trazadura, dorretxeak, Gerra Karlisten gotorlekuak edota antzinako elizen zein baselizen aztarnak ikusiko ditugu. Varonek solasaldian zehar azalduko digun modura, gure ondarea iker-tzeko, ulertzeko eta babestu ahal izateko paisaiak airetik irakurtzea ere oso garrantzitsua izango da.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko
pertonentzat.

EL ROJO DE HONDARRIBIA

JESÚS CARRERA



ASTEAZKENA, URRIAK 7

ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA

«*Memoria berreskuratzen: Jesus Carrera: Hondarribiko Gorria*»

Fitxa teknikoa:

Zuzendaria: Aitor Baztarrika Oca

Kultura: Euskalduna

Iraupena: 61 minutu

Hizkuntza: Gaztelania

Urtea: 2024

Aurkezpena: Etxahun Galparsoro Ansola (Teknikaria Lazkaoko Beneditarren Fundazioan)

Ordutegia: 19:00

Lekua: Bibat Museoa (Aiztogile kalea, 54)

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: FICAB eta Bibat Museoa

Dokumental honen proiektzioaren helburua da hamarkadez isildutako memoria bat berreskuratzea.

Jesus Carrera Olascoaga hondarribiarra, Espainiako Alderdi Komunistako idazkari nagusia, 1945ean fusilatu eta Alcala de Henareseko hilerriko hobi komun batean lurperatu zuten. Urte luzez, isiltasun mantu batek estali zuen bere ibilbidea, hainbestearino non bere familiak ere ez baitzekien funtsezko une historikoetan izandako zeregina, hala nola Gerra Zibilean, Frantzia okupatuko erresistentzian edo Espainiako Alderdi Komunistaren berrantolaketa klandestinoan frankismoaren lehen urteetan. 2018ra arte ez zen bere figuraz hitz egiten hasi, bere gorpuzkiak hobitik berreskuratuta eta Hondarribira eraman ondoren.


Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



**DIO
CE
SIS+** Archivo
Histórico
Artxibo
Historikoa



**ARTXIBO
ARCHIVO**

MMDDVV
elizbarrutetako inbiziak
historia dokumentuak



**DIO
CE
SIS+** Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

ASTEAZKENA, URRIAK 14

BISITA GIDATUA

«Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa: Angel Sagarminaga Mendieta ren emaria gordetzea 100 urte ondoren»

Ordutegiak: 10:00 / 12:00

Hizkuntza: Gaztelania

Tokia: Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa (Vitoria-Gasteiz. Beato Tomas Zumarraga kalea, 67)

Hizlariak: Itziar Lafuente Castañeira (Artxibozaina)
Vanessa Jimenez Hortas (Artxibozaina)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa eta Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutia

Euskal Misioen Elizarteko Artxiboak bere ateak zabalduko ditu bisita gidatu oso berezia eskaintzeko. Angel Sagarminagaren Mendieta Misio Pontifikaletako Zuzendari izendatu zutela ehun urte bete direla eta, jarduera hau bere ondarean barneratzeko eta gure gizartea Afrikako eta Amerikako komunitateekin lotzen duen historia partekatu batean murgiltzeko gonbidapen ederra da.

Dokumentu zehatz batzuen bidez, Sagarminagaren irudia ezagutzeaz gain, Elizbarrutiko Misioen ibilbidea eta horretan sortutako giza, kultura eta gizarteko loturak ezagutzeko aukera izango duzu. Ondare dokumental bat zaindu, berreskuratu eta bizitza berri bat ematearen garrantzia ulertzeko aukera paregabea, nor garen ulertzen laguntzen diguna. Zatoz Artxiboa ezagutzera. Oraindik ere iraganak hitz egiten digu eta.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



BEI A eta B lineak. Geltokia: Seminarioa. **5. linea.** Elejalde. Geltokia: Seminarioa. **7. linea.** Borinbizkarra. Geltokia: Seminarioa.



ASTEAZKENA, URRIAK 14

BISITA GIDATUA

«1976ko martxoaren 3a. Sarraski baten hiri-arkeologia»

Ordua: 18:00

Hizkuntza: Euskara

Topalekua: Martxoak 3 Plaza, Vitoria-Gasteiz

Gidak: Josu Santamarina Otaola (Memoria Gara), Julen Diaz Argote (Martxoak 3 Elkar-
tea) eta Amaïur Arbe Arrieta (Martxoak 3 Elkartea)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzaileak: Martxoak 3 Elkartea, Memoria Gara eta Gasteizko Elizbarrutia

1976ko martxoaren 3an Zaramaga auzoan izandako sarraskiaren aztarnei buruzko ibilbidea proposatzen digute. Lehenik eta behin, 1976ko urtarriletik martxora bitarteko greben protagonista izan zen langile-mugimenduari buruzko hiri-ikuspegia eskainiko da: iraganeko enpresa nagusiek zerikusi gutxi zuten egungo paisaia desindustrializatu eta komertzialekin.

Martxoaren 3ko sarraskia San Frantzisko elizan izan zen, baina, Zaramagako beste parrokian, Belengo elizan, langileen batzarrak ere egin ziren. Azkenik, elkarrizketa, artxibo eta zundaketa arkeologikoen bidez jasotako informazioari esker, gertaeren berreraikuntza posible bat aurkeztuko da: San Frantziskoko batzar jendetsua, poli-
ziaren indarkeriazko ekintza eta herritarren erresistentzia zibila.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



TUvisa

Línea 5-A: Arkaiate-Elejalde - Extensión a Astegieta. Parada: Urartea-Vitoriabidea

Línea 5. Arkaiate-Elejalde. Parada más cercana: Avenida de los Huetos-Antonio Machado.

Línea 7. Borinbizkarra-Paz. Parada más cercana: Paula Montal

OSTEGUNA, URRIAK 15

TAILERRA

«Eta, hau nola gordetzen da?»

Ordua: 11:00

Iraupena: 1.5 ordu

Topalekua: Zaharberrikuntza Zerbitzua. AFAko Ibilgailuen Zerbitzua (Vitoria-Gasteiz. Urarte kalea, 4)

Hizkuntza: Elebiduna (Euskara/Gaztelania)

Gidak: Zaharberrikuntza Zerbitzuko langileak

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzua

Ondarean pentsatzean, askotan museo batean aurkitu ahal diren objektuekin lotzen dugu. Halere, ondare hitzak ere gure historia pertsonalarekin edota familiarrarekin zerikusia izan dezake: argazkiak, gutunak, txanpon zaharrak, zapi bat, gure lehen liburua edota birramonak margotutako mihise txiki bat. Guzti horiek etxean gordetako oroimenak dira, kutxa baten barruan gordeta, paretan zintzilikatuta edo apal gainean jarrita.

Objektu horiek hainbat hondatze-faktoreren eraginpean badaude, haien zahartzea bizkor-tu edota erabat gal daitezke. Zaintza espezifikorik merezi al dute? Gure familian urte askoz gehiago egon daitezen lagun dezakegu? Zaharberrikuntza Zerbitzutik eta kontserbazio eta zaharberrikuntza profesionalen eskutik objektu horiek balioan jartzen, babesten eta, haien kontserbazioa hobetzeko, ondo gordetzen ikasiko dugu.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



**bi
oati**
Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

LABRIT
EGITEN GAITUENA

OSTEGUNA, URRIAK 15

HITZALDIA

«Ondare ukiezina, ondare ikusezina?»

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: Beatriz Gallego, Historian eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), Labrit Ondarea

Tokia: Bibat Museoa (Vitoria-Gasteiz. Aiztogile kalea, 54)

Sarrera: Librea, edukiera bete arte

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Bibat Museoa eta Labrit Ondarea

Seguru asko Ukiezina Kultur Ondarearen alderdi ezezagunenetako bat da. Ezjakintasun horretaz gain, Ondare Ukiezinaren ahultasun bera arazo larria izan daiteke, babes-neurrien garrantziaz ez baikara ohartzen.

Hitzaldian zehar, Beatriz Gallego adituak egoera horrekin bukatzeko azken urteotan Araban garatu diren ekimen desberdinez hitz egingo digu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



OSTIRALA, URRIAK 16

TAILERRA KOMUNITATE IJITOA IKUSTARAZTEN

«Ijito kafea: Gure sigilua»

Ordua: 17:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: Sim Romi Elkarte

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com /945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Sim Romi Elkarte eta Bibat Museoa

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia

Ijito Herriaren abegikortasuna, erresistentzia eta komunitate-sena gertutik bizi egiteko aukera paregabea, bere ohitura zaharrenetako baten bidez: kafearen sinbologia.

Topaketa honetan ikusiko dugu nola eguneroko tradizio bat bizirik diraun ondare kultural baliotsu bihur daitekeen, belaunaldiz belaunaldi transmititua eta identitatea, memoria eta lotura komunitarioak bizirik mantentzeko gai dena. Oraindik ere gure esku dauden jakintzak zaintzearen, partekatzearen eta berrirudikatzearen garrantziaz hausnartzeko gonbidapena.

Bukatzeko, taldeak egindako kafeaz disfrutatuko dugu, bere zapore ijito guztiarekin.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**Artziniega
MUSEOA**

OSTIRALA, URRIAK 16

HITZALDIA

«Euskal laiak»

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: Juan de Amesti

Tokia: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa, 12)

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: «Artea» Elkarte Etnografikoa

Kolaboratzailea: Artziniégako Udala eta Arabako Foru Aldundia

Laiak Euskal Herriko eta gertuko lurraldeetako laborantza tresna bereizgarriak dira, mendeetan zehar ereitea egin aurretik lurra iraultzeko eta prestatzeko erabiliak. Teknika, esfortzua eta lan kolektiboa eskatzen zuen horiek erabiltzeak, eta euskal ondare etnografiakoaren eta nekazaritza munduaren memoriaren parte dira. Hitzaldi honekin laien historia, bilakaera eta esangura ezagutzera gonbidatzen gaitu, jakintza hauek berreskuratzeak eta transmititzeak gaur egun, inoiz baino gehiago, gure eskuetan dagoen ondarea bizirik mantentzen nola laguntzen duen hausnartuz.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.

ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

15. Linea (Vitoria-Gasteiz / Amurrio). Irteera Autobus Geltokitik: 17:35

Amurrión, **16. Linea** hartu (Artziniega-Okondo) Gutxi gorabeherako irteera: 18:14

BUELTA

Artziniégan, **16. Linea.** Gutxi gorabeherako irteera: 20:50

Amurrio, **15. Linea** hartu. Gutxi gorabeherako irteera: 21:49





LARUNBATA, URRIAK 17

BISITA GIDATUA

«Murua eta Exaguen artean: Lanbideak eta ohiturak Gorbeia magalean»

Ordua: 10:00

Zailtasuna: Ertaina, 4km inguru

Hizkuntza: Gaztelania

Topalekua: Muruako aparkalekua

Gida: Belen Vazquez Navajas, arkeologoa eta Ondare Doktorea Kordobako Unibertsitatean (UCO)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Con Mucha Historia

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia

Paseo historiko honen bidez Zubialde ibai ertzeko iraganeko komunitateen bizimoduak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu. Horretarako, elementu desberdinetaz baliatuko gara, hala nola, Muruako errota, antzinako karegile batez edota erlategi batzuetaz, milakaurteko apikultura praktikak Gorbeialdetik mantendu direla baieztatzeko. Zubiak, bideak eta Magdalenako baselizaren aztarnak osatuko dute gure ibilbidea.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDATIOA



**Artziniega
MUSEOA**

LARUNBATA, URRIAK 17

BISITA ANTZEZTUA

«Lanbide antzeztuak»

Ordutegiak: 12:00 / 17:30

Hizkuntza: Euskara

Lekua: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa kalea, 12)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: arteaartziniega@gmail.com / 945396210

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 24 ordu lehenago

Antzezleak: Ambostres Antzerki Taldea-Grupo de Teatro

Antolatzailea: «Artea» Etnografia Elkartea

Laguntzaileak: Artziniegako Udala, Vital Fundazioa eta Arabako Foru Aldundia

Aldez aurretik erreserbatutako bisitan, lanbide desberdinak antzeztuko dira. Ez da «Museo Bizian» bezala izango, lanbideak erreferentziatzat hartuta istorio bat sortuko baita haien inguruan, eta hainbat aktorek interpretatuko dute garai bateko bizimoduak, hizkuntza, bizipenak...

Antzeztutako bisita hauen helburua Museoko lanbide bakoitzari funts kultural erantsi bat ematea da, horietako asko desagertzeko arriskuan baitaude eta, prozesu desberdin horietaz gain, anekdota-bilduma bat edukitzeko xedea dugu, bertan pertsonaiak, ohiturak eta herri gertakizunak agertuko baitira, Artziniegako ondare ukiezina aberasten dutenak.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko
pertsontentzat.



IGANDEA, URRIAK 18

BISITA GIDATUA

«Bilarreko San Bizenteko dolarearen indusketa arkeologikoa»

Euskarazko taldea: 10:30

Gaztelaniazko taldea: 12:00

Iraupena: Gutxi gorabehera 2 ordu

Zailtasuna: Ertaina, 3.5 km inguru

Gomendioak: Kirol oinetakoak eta ura eraman

Tokia: Bilarko Udaletxea (Santa Maria plaza, 20)

Gidak: Jose Rodriguez Fernandez (EHU) eta Angel Martinez Montecelo (EHU eta GAPT)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Bisita hasieran ibilaldi atsegina egingo da mahastien artean, aztarnategi arkeologikora iritsi arte. Arabako Errioxan aurkitutako dolareen artean, San Bizentekoa da arkeologikoki datatu duten lehena. Dolareen ondare-balioa eta ardoaren/mahastiaren paisaia izango dira bisitan zehar landuko diren gai nagusiak, baita egitura horien azterketa- eta kontserbazio-arazoak ere.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irigarria.



PALACIO
ZAMBRANA
HERRAN
JAUREGIA



Valle Salado
de Añana
Añanako
Gatz Harana

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irisgarria.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

13. Linea. Vitoria-Gasteiz / Langraiz Oka / Bo-
veda: 945 182 060. Irteera Vitoria-Gasteiztik
(Autobus Geltokia): 9:00

BUELTA:

13. Linea. Vitoria-Gasteiz / Langraiz Oka / Bo-
veda: 945 182 060. Irteera Galtza Añanatik:
14:26 / 18:26.

IGANDEA, URRIAK 18

BISITA GIDATUA

«Gesaltza Añanako ondarearen berreskuratzea: Añanako Gatz Harana eta Zambrana-Herran Jauregia»

Euskarazko taldea: 10:30: Gatz Harana. Bisitarien gunea
(Gesaltza Añana. Real kalea, 1)
12:30: Zambrana-Herran Jauregia
(Gesaltza Añana. Carrera kalea, 14)

Gaztelaniazko taldea: 10:00: Zambrana-Herran Jauregia
(Gesaltza Añana. Carrera kalea, 14)
12:00: Gatz Harana. Bisitarien gunea
(Gesaltza Añana. Real kalea, 1)

Gidak: Añanako Gatz Harana Fundazioa eta Kalearte Turismo y Cultura S.L.L.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: Añanako Gatz Harana Fundazioa eta Zambrana-Herran Jauregia

Bisitan zehar, Añanako Gatz Haranaren aberastasun historiko, arkitektoniko, arkeologiko eta naturalaz gozatzeko aukera izango dugu. Horrez gain, 2026ko Ondarearen Europako Jardunaldien testuinguruan, planetako gatz-paisaia liluragarrienetako bat babesteko abian dagoen berreskuratze-proiektu konplexua ezagutuko dugu.

Kultur paisaia honen berpiztea Gatz Harana Fundazioaren lanari esker lortu da. 90eko hamarkadaren amaieratik, erakunde honek erakunde publiko desberdinak (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Añanako Udala) eta gatzgileak elkartu ditu gune hau modu jasangarrian berreskuratzeke. Lan aitzindari honi esker, proiektuak Europar Batasunaren Europa Nostra Saria jaso du eta, gaur egun, Munduko Nekazaritza Ondarearen (SIPAM) parte da, UNESCOren eskutik.

Gatz Haran ikusgarritik metro gutxira, Zambrana-Herran Jauregiaren historia aberatsa ezagutuko dugu. Jauregia boterearen eta garrantzi politiko, ekonomiko eta sozialaren ikurra da XVII. mendetik. Honen XVIII. eta XIX. mendeetako arkitektura eta dekorazioak Arabako ondarearen ezinbesteko elementua bihurtzen dute.



**DIO
CE
SIS+** Archivo
Histórico
Artxibo
Historikoa



**ARTXIBO
ARCHIVO**

MMDDVV
elizbarrutetako inbiziak
historia dokumentuak



**DIO
CE
SIS+** Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

ASTEAZKENA, URRIAK 21

BISITA GIDATUA

«Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa: Angel Sagarminaga Mendieta-ren emaria gordetzea 100 urte ondoren»

Ordutegiak: 10:00 / 12:00

Hizkuntza: Gaztelania

Tokia: Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa (Vitoria-Gasteiz. Beato Tomas Zumarraga kalea, 67)

Hizlariak: Itziar Lafuente Castañeira (Artxibozaina)
Vanessa Jimenez Hortas (Artxibozaina)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Euskal Misioen Elizarteko Artxiboa eta Elizbarrutiko Artxibategi Historikoa

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutia

Euskal Misioen Elizarteko Artxiboak bere ateak zabalduko ditu bisita gidatu oso berezia eskaintzeko. Angel Sagarminaga Mendieta Misio Pontifikaletako Zuzendari izendatu zutela ehun urte bete direla eta, jarduera hau bere ondarean barneratzeko eta gure gizartea Afrikako eta Amerikako komunitateekin lotzen duen historia partekatu batean murgiltzeko gonbidapen ederra da.

Dokumentu zehatz batzuen bidez, Sagarminagaren irudia ezagutzeaz gain, Elizbarrutiko Misioen ibilbidea eta horretan sortutako giza, kultura eta gizarteko loturak ezagutzeko aukera izango duzu. Ondare dokumental bat zaindu, berreskuratu eta bizitza berri bat ematearen garrantzia ulertzeko aukera paregabea, nor garen ulertzen laguntzen diguna.

Zatoz Artxiboa ezagutzera. Oraindik ere iraganak hitz egiten digu eta.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



BEI A eta B lineak. Geltokia: Seminarioa. **5. linea.** Elejalde. Geltokia: Seminarioa. **7. linea.** Borinbizkarra. Geltokia: Seminarioa.



ASTEAZKENA, URRIAK 21

BISITA GIDATUA

«1976ko martxoaren 3a. Sarraski baten hiri-arkeologia»

Ordua: 18:00

Hizkuntza: Gaztelania

Topalekua: Martxoak 3 Plaza, Vitoria-Gasteiz

Gidak: Josu Santamarina Otaola (Memoria Gara), Julen Diaz Argote (Martxoak 3 Elkar-tea) eta Amaïur Arbe Arrieta (Martxoak 3 Elkartea)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzaileak: Martxoak 3 Elkartea, Memoria Gara eta Gasteizko Elizbarrutia

1976ko martxoaren 3an Zaramaga auzoan izandako sarraskiaren aztarnei buruzko ibilbidea proposatzen digute. Lehenik eta behin, 1976ko urtarriletik martxora bitarteko greben protagonista izan zen langile-mugimenduari buruzko hiri-ikuspegia eskainiko da: iraganeko enpresa nagusiek zerikusi gutxi zuten egungo paisaia desindustrializatu eta komertzialekin.

Martxoaren 3ko sarraskia San Frantzisko elizan izan zen, baina, Zaramagako beste parrokian, Belengo elizan, langileen batzarrak ere egin ziren. Azkenik, elkarrizketa, artxibo eta zundaketa arkeologikoen bidez jasotako informazioari esker, gertaeren berreraikuntza posible bat aurkeztuko da: San Frantziskoko batzar jendetsua, poli-ziaren indarkeriazko ekintza eta herritarren erresistentzia zibila.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irigarria.



TUVISA: Línea 1. Circular. Parada: Reyes de Navarra, 19.

Línea 5. Arkaiate – Elejalde. Parada: Plaza Zuberoa



Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**Artziniega
MUSEOA**

LARUNBATA, URRIAK 24

BISITA ANTZEZTUA

«Lanbide antzeztuak»

Ordutegiak: 12:00 / 17:30

Hizkuntza: Gaztelania

Lekua: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa kalea, 12)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: arteaartziniega@gmail.com / 945396210

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 24 ordu lehenago

Antzezleak: Ambostres Antzerki Taldea-Grupo de Teatro

Antolatzailea: «Artea» Etnografia Elkartea

Laguntzaileak: Artziniegako Udala, Vital Fundazioa eta Arabako Foru Aldundia

Aldez aurretik erreserbatutako bisitan, lanbide desberdinak antzeztuko dira. Ez da «Museo Bizian» bezala izango, lanbideak erreferentziatzen hartuta istorio bat sortuko baita haien inguruan, eta hainbat aktorek interpretatuko dute garai bateko bizimoduak, hizkuntza, bizipenak...

Antzeztutako bisita hauen helburua Museoko lanbide bakoitzari funts kultural erantsi bat ematea da, horietako asko desagertzeko arriskuan baitaude eta, prozesu desberdin horietaz gain, anekdota-bilduma bat edukitzeko xedea dugu, bertan pertsonaiak, ohiturak eta herri gertakizunak agertuko baitira, Artziniegako ondare ukiezina aberasten dutenak.


Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



AMBA



Arabako Arte Eder Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

LARUNBATA, URRIAK 24

HITZALDIA: SOLASALDIAK ARTE EDERREN MUSEOAN PROGRAMA

«Lovy, komedia musikal gasteiztarrenaren 50. urteurrena (Utopia kolektibo baten intrahistoria)»

Ordua: 17:00

Hizkuntza: Gaztelania

Hizlaria: Enrike Ruiz de Gordoak

Tokia: Arabako Arte Ederren Museoa (Vitoria-Gasteiz. Fray Francisco Ibilbidea, 8)

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Koordinatzailea: Vicente Arrizabalaga Loizaga

Antolatzailea: Arabako Arte Ederren Museoko Lagunen Elkarte (AMBA)

Kolaboratzailea: Arabako Arte Ederren Museoa eta Arabako Foru Aldundia

«LOVY, (A veces tienes una pena en el corazón)» komedia musikala izan zen, 1971an Oscar Gomez konpositore gazteak sortua, haur eta gazteentzat pentsatua zegoen.

Enrike Ruiz de Gordoak, musika- eta antzerki-sortzaile gisa, baimena eskatu zion Oscar Gomezi ikuskizuna gure hirian muntatzeko. Horrela, Samaniego Ikastetxeko Eskolaniako, Balleteko eta Antzerki Taldeko 80 abeslari, aktore eta dantzari gaztek baino gehiagok LOVYren bertsio bat estreinatu zuten Guridi Antzokian 1976ko apirilaren 3an. Musikal honek izugarrizko arrakasta izan zuen, 1976ko Andre Maria Zuriaren jaietan programatu zen ikuskizun bakarra izanik, Martxoaren 3ko gertaerak zirela eta.

Enrike Ruiz de Gordoaren solasaldian zehar, anekdotak, prentsa zatiak eta irudiak gogoratuko dira; musika ona entzungo da eta bere laguntzaz duela berrogeita hamar urte Vitoria-Gasteizen hasitako bidaia musikal hunkigarria ezagutuko dugu.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



ERDI AROKO
ARABA



ÁLAVA
MEDIEVAL



DIO
CE
SIS+

Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

IGANDEA, URRIAK 25

BISITA GIDATUA

«Sugarretatik salbatu zen altxor errenazentista: Jasokundeko Andre Mariaren eliza»

Ordua: 10:00

Hizkuntza: Gaztelania

Topalekua: Jasokundeko Andre Mariaren eliza (Bilar. Santa Maria plaza, 20)

Gida: Josu Mendaza, Artearen Historian doktoregaia Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) eta kolaboratzailea Erdi Aroko Araban

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: Erdi Aroko Araba eta Gasteizko Elizbarrutia

2016ko udaberrian, Bilarko Jasokundeko Andre Mariaren elizako sakristian sortutako sutea ondare galera konponezina izateko zorian egon zen. Suhiltzaileen esku-hartze azkarrek kalte handiagoak saihestu ahal izan bazituen ere, pieza batzuk kiskalita geratu ziren eta keak elizaren zati handi bat kaltetu zuen.

Hamar urte ondoren, gertaera eta eliza bikain honetaz berriz gozatzeko egondako zaharberritze-lanak ezagutzeko aukera izateaz gain, Arabako erretaula errenazentista bikainenetako bat ikusiko dugu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko
pertsonentzat.



ERDI AROKO
ARABA



ÁLAVA
MIEIEVAL



Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

OSTEGUNA, URRIAK 29

HITZALDIA

«Hileta-kultura herrikoia Araban»

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Tokia: Bibat Museoa (Vitoria-Gasteiz. Aiztogile kalea, 54)

Hizlaria: Ander Gondra, artearen historialaria eta antropologoa Erdi Aroko Araban

Sarrera: Librea edukiera bete arte

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Erdi Aroko Araba eta Bibat Museoa

Mendeetan zehar heriotzaren eta beste munduaren kudeaketak belaunaldiz belaunaldi errotutako kultur praktika ugari ekarri ditu. Adibidez, arimen sufragioan edota doluan laguntzean oinarritutako kofradiak eta hildakoen monumentu efimeroak denboraren poderioz praktikatzeari utzi zioten, zeremoniak eta erritua horiek erabat desagertu arte.

Arabako objektuen eta kasu desberdinen bidez, horietako ohitura batzuk berpiztu ahal izango ditugu, haien erabilera eta ondare-garrantzia aztertuz.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



LARUNBATA, URRIAK 31

BISITA GIDATUA

«Ibarrako historian eta ohituretan barrena»

Euskarazko taldea: 11:00

Gaztelaniazko taldea: 12:30

Topalekua: Vicente Goikoetxea plaza

Zailtasuna: Ertaina, 3km inguru

Gida: Kalearte Turismo y Cultura S.L.L.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Bisitan zehar, Aramaioko Udaletxea eta San Sebastian basiliza ezagutuko ditugu, «Sastiña» izenez ezagunagoa, Ibarrako antzinako foruen eta merkataritzaren zaindari historikoa. Horrez gain, Ibarran jaiotako Vicente Goikoetxea musikari ospetsuaren etxe aurrean nortasun lokalaz hitz egingo dugu, harrizko baserri tradizionalen distira eta bertako erromeria edota azokak bezalako memoria biziak uztartuz. Paisaia miresteaz gain, paseo honek ahozko memoriarekiko konpromiso aktiboa hartzera eta babestuz gero desagertzeko arriskua duen landa-identitatea zaintzera gonbidatzen du.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonek iragarria.



IGANDEA, AZAROAK 1

BISITA GIDATUA

«Portilla-Zabalate Multzoa. Gaztelua, hiribildua eta egungo herria»

Ordua: 11:00

Hizkuntza: Euskara

Topalekua: Portilla. Trinitatearen Eliza (Elizako plaza, 1)

Zailtasuna: Ertaina (10 urte baino helduagoentzat). 3 km inguru 100 metroko igoe-rarekin

Gida: Aitziber Perez (Castillo de Portilla Landetxea)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945 101 070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago

Gomendioak: Arropa eroso, kirol oinetakoak eta ura eraman

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: Castillo de Portilla Landetxea

Portilla-Zabalateko multzoko aztarnategian egindako hainbat kanpaina arkeologikoei esker baieztatu da eremua Protohistoriatik Aro Modernora arte okupatu zela. Zehazki, Amaierako Brontze Aroko–Burdin Aroko I. garaiko, Antzinako Berantiarreko eta Erdi Aroko aztarnak berreskuratu dira (XI. mendetik XIV.era bitartekoak), bai eta XVIII. mendera arteko aztarna puntual batzuk ere.

Ibilbidean zehar, elementurik esanguratsuenak ezagutuko ditugu, hala nola, Erdi Aroko hiribilduko harresi bikainak, gazteluaren ingurua eta dorrea. Portilla de Ibdako gotorlekuak Ayuda eta Ebro ibaien elkarguneko eskualde osoa kontrolatzen zuen, baita Araba, Burgos eta Errioxa eremuen arteko komunikazio garrantzitsuak ere. 2016an, multzoak Hispania Nostra Saria jaso zuen, Lurraldean edo Paisaian Esku-hartzearen Kategorian.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontentzako irisgarria.



